

ERAKUSKETA

BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK

Lumaltik Herriak elkarteak Gipuzkoan antolatutako topagune eta
prestakuntza prozesuen gaineko hausnarketak

- 2024 -

AURKEZPENA

Lumaltik Herriak GGKEak, beste kolektibo batzuekin batera, 2024. urtean Gipuzkoan egindako lan eta heziketa prozesuetan bideratutako hausnarketetatik abiatuta sortutako material bisualak eta gogoetak biltzen dira erakusketa honetan.

Askotariko emakumeen jakintzak eta esperientziak hainbat espazio ezberdinetan azaleratzea izan da proiektuaren funtsa, herri ezagutza prozesu politiko eta eraldatzaile gisa ulertuta. Topaketa hauetan, parte hartzaile guztiek “Ongi Bizitze” eredua zer den eta gure ikuspegi ezberdinak partekatu ditugu. Elkartruketik abiatuta, ideia horiek praktikara eraman dira tailer ziklo batean, eta, bertan, autozaintza eta zaintza kolektiboa, elikadura burujabetza eta elikagaien ekoizpen agroekologikoa landu ditugu, baita laguntza sareak sendotzea eta aliantzak sortzea ere.

Erakusketa osatzen duten material bisualak Marina Gallardo Izquierdo argazkilariak topaketetan parte hartu duen bitartean ateratako argazki eta idatzietatik abiatuta egin dituzte. Irudiak sortzeko erabiltzen den ikuspuntua erabat subjektiboa da. Hala ere, artelanei eusten dieten ideiak truketik sortzen dira, eta, beraz, topaketetan parte hartzen duten pertsona guzti-guztiak dira, modu batera edo bestera, haien sortzailekideak ere.

Elkarrizketatik sortzen den lana da, baina ezin da bukatutzat eman, narratibak garatzen jarraitzen baitu orain ikuslearekin sortzen den elkarrizketarekin.

Ez dugu orain bizi garen lurralde hauetan Ongi Bizitze bat izateko errezeta zehatza, baina topaketaren, elkarrizketaren eta sororitate erradikalaren aldeko apustua egiten dugu errebelia eta maitasuna ardatz nagusi izanda.

Ongi Bizitze ereduaren gidaliburua

Historikoki, sukaldea emakumeentzat egokitutako espazioa izan da. Lan inposaturako espazio bat, non genero rola etengabe ahalbidetu diren. Baina zaintzarako, trukerako, sororitaterako eta babeserako gune bat ere izan da.

Gure arbasoen borrokari esker, espazioak, kanpo eta barneak geureganatzen jarraitzen dugu orain. Sukaldea bilgune hori dela aldarrikatzen dugu. Zaindu, hitz egin eta entzuten den espazio, alegia.

Janaria bizitzaren sostengurako oinarrietako bat da. Hizkuntza unibertsaleko tresna bat da, hizkuntza edo kultura edozein dela ere besteekin adierazteko eta komunikatzeko balio duena.

Baina gorputzak eta lurraldeak ustiatzeko kausa ere bada. Elikatzeko dugun modua politikoa da. Izan ere, nola jaten dugun esan ahal izateko, zenbait galdera deserosoei erantzun behar zaie:

Zein da kontsumitzen ditugun elikagaien jatorria?

Zer ustiapenen motan oinarritzen da supermerkatuetan eskura dagoen elikagaien barietatea?

Nork lantzen du? Nork biltzen du? Nork artatzen du

merkataritza? Nork prestatzen du janaria? Nork irabazten du horrekin guztiarekin?

Erakusketa honekin sukaldaritza biziraupenerako beharrezko zainketen parte gisa aldarrikatzen da. Baita identitate gisa ere, lurraldearekin eta bizitzaren indarrarekin konektatzeko.

Emakume talde batek duen botere eraldatzaile handiaren erakusketa txiki bat da, errezetak, praktikak eta esperientziak partekatzen dituztenak elikagaiak prestatzen dituzten bitartean.

> Argazkigintza digitala.

> Koloretako inprimaketa luma-kartoiaren gainean, 21x14cm-ko eta 21x31,5cm-ko tamainan.



Sandabelarren garrantzia gorputzen zaintza eta osasunarentzat

Landareak eta haien propietateak zainketarako eta osasunerako erabiltzea ohikoa izan da historikoki, eta modu organikoan eman da mendeetan zehar gizarte talde guztietan. Gizarte industrial eta kapitalistenetan, ordea, gure osasuna hobetzeko landareen propietateak eguneroko zaintzan aplikatzea galduz joan da. Praktika horren galerarekin, landareek sendatzeko dituzten gaitasunei lotutako ezagutza ere galtzen joan da, eta azken belaunaldiok jakintza horiek gabe hazi gara.

Sendabelarren erabilerak berreskuratzeak gure arbasoen jakintzekin kontaktuan jartzea dakar, naturan dagoen botere guztia eguneroko bizitzara eramateko.

Erakusketa honetan, tailerretan erabili ditugun 6 landare bildu dira, eta haietatik abiatuta zianotipiak sortu dira.

Zianotipia errebelatze teknika bat da. Teknika horretan, eguzki argiak produktu kimiko fotosentikor bat ukitzen duenean eta harekin inpregnatzen denean, irudia paperera transferitzen da. Praktika horrek irudiak sortzeko elementu naturalak zuzenean kontaktuan izatea eta erabiltzea dakar. Denborarekin eta neurriekin esperimentatzea oinarri duen teknika bat da; horregatik, erakusketa hau sortzea ikaskuntza prozesuaren beraren parte izan da, landareekin kontaktuan egotea suposatu duena.

- > Zianotipiak akuarela-paperean.
- > 13 x 18 cm



Lur eta lurraldearen defendatzaileak

Lurraren eta lurraldearen defentsa bizi-apustu politikoa da. Defendatzaileak emakumeen, naturaren eta herrien eskubideak lehen lerroan defendatzeko antolatuta jarduten duten emakumeak dira. Horrela, sistema patriarkal, arrazista eta kapitalista batekin hautsi nahi dute, zeinak naturaren suntsipena, lurren erauzketa eta haien eskubideen urraketa sistematikoa eragiten dute emakume izateagatik, arrazializatuak izateagatik, migratuak izateagatik edo kolonizatutako lurralde bateko herritar izateagatik.

Nekazariak dira, Giza Eskubideen aldeko langileak, aktibistak, beren egunerokoan elikagaien ekoizpen eta kontsumo kontzientearen alde egiten dutenak, jakintzak berreskuratzeko lan egiten dutenak, elkarri laguntzeko eta zaintzeko sareak ehuntzen dituztenak.

Bizitza beraren kontra doan eredu neoliberalaren aurkako erresistentzian euren gorputzak jartzen dituzten emakumeak dira, eta bizitzaren jasangarritasunaren alde egin eta zaintzak erdigunean jarriko dituzten beste eredu batzuk eraikitzeke lanean ari dira. Berez bortitza den ekoizpen eta kontsumo eredu neoliberalaren aurrean, lurralde ezberdinetako gizarte mugimenduok Ongi Bizitze baterantz aurrera egitea ahalbidetuko diguten alternatibak aldarrikatzen ditugu.

> A3 neurriko laminak 250g-ko offset paperean.



“Sendabelarrak gerturatu nahi izan ditugu, eta gure emozioak bezain sinbologia duten alderdiak nahastu ditugu. Argia eman, arreta eman, barruko eta barneko begirada bat. Izan ere, gure oinarri emozionala osasuntsu ez badago, nekez goza dezakegu bizitza on bat”.

Lucia Hernandez Perez, Alma&Lutxia
Elkartea (Santurtzi)

“Herriak euren kabuz elikatu daitezkeela aldarrikatzen dugu, lurra kolektibizatu egin behar dela uste dugu eta lurraren lanaren aldeko apustua, oso gogorra bada ere, gaur egun dagoen eredu kapitalistari aurre egin ahal izateko apustu politikoa dela uste dugu”.

Mery-Ann Garling, Etxealdeko Emakumeak
(Abya Yala-Euskal Herria)





“Chiapaseko herri indigenen eskubideen alde lan egiten dugu, ikuspegi agroekologikoarekin, elikadura burujabetza bat helburu izanda.

Baita ekonomia solidarioarekin eta herrietan Ongi Bizitze eredua etxe eta zaintzen ardatz Nagusia bilakatzeko”.

Juana Garcia Flores (Mexiko), DESMI Erakundea (Desarrollo Economico y Social de los Mexicanos Indigenas)

“Transfeminismoa potentzia politikoa da, maitasuna da. Nire bizitza salbatu du, deseraikitzen lagundu didalako eta neure burua maitatzen irakatsi didalako. Sororitatea, maitasun propioa, maitasun kolektiboa eta trans emakumeen arteko maitasuna zer diren erakutsi dit. Maitasunak beldurra garaitzeko ahalmena du”.

Angela Romero OTRANS Reinas de la Noche Erakundea (Guatemala)





“Emakumeen aurkako indarkeriaren problematika guztiarekin lan egiteak zerikusia du gorputzekin ere. Osasuntsu eta aske bizitzea, osasunetik, gure pentsamenduetatik, ideietatik, gorputzetatik... arreta integrala ematea esan nahi du”.

Iliana Tzin Quixchan (Guatemala), Peten Ixqik Emakume Elkarteko kidea

“Migratzen dugun emakumeok ikasketekin gatoz, historia bat dugu, errealitateekin eta esperientziekin gatoz. Oso garrantzitsua da antolatzea, laguntza sareak ezartzen dituzulako, beste pertsona batzuk ezagutzen dituzulako, beste errealitate batzuk ezagutzen dituzulako, konturatzen zarela ez zarela zu bakarrik arazo hori bizitzen ari”.

Tatiana Bellorin (Nikaragua), SOS Racismo elkarteko Etxeko Langileen taldeko kidea

